



# COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak

## Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

### AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Pandemiara moldatutako antolakuntzari buruzko zenbait gogoeta orokor
  - 2.1 Ardatz nagusiak
  - 2.2 COVID-19aren kontrolerako oinarrizko neurriak
  - 2.3 Informazio-neurriak
    - 2.3.1 Jarduera hasi aurretik
    - 2.3.2 Jarduera garatu bitartean
  - 2.4 Pertsona arduradunak eta partehartzaileak
3. Antolaketa eta segurtasun neurriak
  - 3.1 Maskarak erabiltzea eta segurtasun distantziaren mantentzea
  - 3.2 Ostatuene kudeaketa
  - 3.3 Garraioaren kudeaketa
  - 3.4 Eski-biltegiaren kudeaketa
  - 3.5 Eski-eskolen kudeaketa
  - 3.6 Ipar Eski Zentroen kudeaketa
  - 3.7 Arratsaldeko jardueren kudeaketa
  - 3.8 Eskiaren ordezkoko jardueren kudeaketa
  - 3.9 Aisialdiaren kudeaketa
  - 3.10 Komunitateko erabileraren kudeaketa
  - 3.11 Garbiketa eta desinfekzioa
  - 3.12 Eski Kanpainako langileen kudeaketa

### I COVID-19 kasuen kudeaketa protokoloa

II 2021 Ipar Eskiko Eskola Kanpainarako partehartze baldintzen, informazioa eman behararen, informazioa jaso izanaren ondorengo baimenaren eta PCR proba egiteko baimenaren onarpen dokumentua



## 1. Sarrera

Dokumentu honek COVID-19aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak jasotzen ditu. Nafar Goberuko Hezkuntza Sailak sortutako 2021-2022 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA JARDUERA PRESENTZIALA AURRERA ERAMATEKO PREBENTZIO ETA ANTOLAKUNTZA PROTOKOLOan oinarrituta dago.

Irailan, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutura XXXVII Ipar Eskiko Eskola Kanpainako plangintza orokorra biltzen zuen dokumentua aurkeztu genuen. Aztertu ondoren, bidalitako protokoloan deskribatzen ziren baldintzatan, Eski Kanpaina eskaintzeko arazorik ez zegoela ondorioztatu zuten, beti ere, une bakoitzean osasun agintariek ezarritako prebentzio neurriak bete beharko direla, eta protokoloa neurri horietara moldatu beharko dela garbi utziz.

Jende asko txertatu da dagoeneko, baina birusaren aldaera berriak agertu direnez eta ikasle guztiak txertatuak ez daudenez, 2021-2022 ikasturtea nola joanen den aurreikustea ezinezkoa da, oraindik ezagutza gutxi bait dugu COVID-19aren pandemiak izan dezakeen bilakaerari buruz.

Pandemiaren bilakaeraren arabera, osasun agintariek besteako jarraibideak ezarriko balituzte, kontingentzia protokolo hau egokitu beharko litzateke, eta berriz ere, agertoko berriaren arabera, zehaztu.

Eski Kanpainako partehartzaileen segurtasun, konfidantza, gardentasun, informazio eta esperientzia baikor inguru bat bermatzeko, osasun publikoaren segurtasunarekin, kontrolarekin eta babesarekin lotutako guztia bermatuko duten bide eta protokoloak abiaraziko dira. Hau guztia, dagokien agintariek eta larrialdi zerbitzuekin etengabeko harremanetan. Horretarako, 2022 urteko Kanpainan, garbiketa eta kalitate protokoloak martxan jarriko ditugu.

Kontingentzia Plan hau Ipar Eskiko Eskola Kanpainako pertsona arduradunek idatzi dute, eta ikastetxeei, eta haien bitartez familiei, bertan jasota dauden neurriak jakinaraziko zaizkie.

Dokumentu honek jasotzen duen protokoloa aurrera eramateak Nafar Gobernuaren baimena eta osasun agintarien oniritzia du.

## 2. Pandemiara moldatutako antolakuntzari buruzko zenbait gogoeta orokor

### 2.1 Ardatz nagusiak

- Kutsapenak sahiestea
- Ipar Eskiko Eskola Kanpainan gerta daitezkeen kasuak garaiz detektatzea eta isolatzea
- Ahal del heinen, Eski Kanpainaren inguruan sortzen diren lanpostu desberdinak mantentzea

### 2.2 Covid-19aren kontrolerako oinarrizko neurriak



## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

- Espazioen eta pertsonen joan-etorrien antolaketa
- Neurri higienikoak

### 2.3 Informazio-neurriak

#### 2.3.1 Jarduera hasi aurretik

Oso garrantzitsua da, prebentzioa indartzeko, higiena mantentzeko eta osasuna sustatzeko helburuz protokoloan jasotzen diren eta Kanpainan ezarriko diren neurriei buruzko informazioa ikastetxe guztietara, eta haien bitartez familietara, zabaltzea eta ongi uler daitezen bermatzea. Helburu honekin:

- Eski Kanpainan lan egiten duen pertsona orori (osteleritza, eski begiraleak, eski-biltegiko arduradunak, arratsaldeko jardueretako begiraleak, garraioen arduradunak,...) informazioa emanen zaio eta prebentzio eta garbiketa neurrien inguruko trebakuntza lortzen lagunduko zaio, beraiek, hein berean, irakasle eta ikasleekin izanzen den komunikazioan lagunduko dute.
- COVID-19aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurrien inguruko informazioa ikastetxe guztietara helaraziko da, eta haien bidez, familia guztietara, eta bide ireki bat mantenduko da, sor litezkeen zalantza guztiak argitzeko.
- [www.esquiescolar.com](http://www.esquiescolar.com) web orrian informazioa zintzilikatuko da.
- COVID-19 kasuen kudeaketa protokoloa helaraziko da (I).
- Partehartzaile edo familiek partehartze baldintzen, informazioa eman beharraren, informazioa jaso izanaren ondorengo baimenaren eta PCR proba egiteko baimenaren onarpen dokumentua sinatu beharko dute (II).

#### 2.3.2 Jarduera garatu bitartean

Pertsona arduradunek astea nola egituratuko den, zein protokolo ezarriko diren eta jarduera segurtasunez garatzeko eta kutsapenak ekiditeko bete behar dien osasun-neurriak zein izango diren jakinaraziko dute. Horretarako:

- Ikastetxe bakoitzari eguneroko plangintza zehaztuko duen dokumentua emango zaio bertan ordutegiak, talde desberdinek burutuko dituzten jarduerak, aisialdiko espazioak,... agertuko dira.
- Eski Kanpainako pertsona arduradunen eskuragarritasuna azpimarratuko da eta haiekin uneoro harremanetan jartzeko bidea erraztuko da.
- Partehartzaileei prebentzio neurriak irakatsiko zaizkie eta jarduera desberdinak egiten diren bitartean maiz indartuko dira. Garbiketa osasuntsu praktikak erakutsi, sustatu eta indartuko dira.



## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

- Infografia, kartel eta seinaleen erabilera indartuko da, prebentzio- eta higiene-neurriak ulertzea eta betetzea sustatzeko. Informazio hori osasun agintarien irizpideen arabera eguneratua dagoela zainduko da.

### 2.5 Pertsona arduradunak eta partehartzaileak

Partehartzaileek eta haien legezko tutoreek osasun eta lege izaerako hainbat baldintza betetzeko konpromezua hartu behar dute Eski Kanpainak jarduerak segurtasunez egin ahal izateko, hori dela eta partehartze baldintzen, informazioa eman beharraren, informazioa jaso izanaren ondorengo baimenaren eta PCR proba egiteko baimenaren onarpen dokumentua sinatu beharko dute ikastetxeen bitartez.

Ipar Eskiko Eskola Kanpainak irauten duen bitartean, ikasteteak 2022 Ipar Eskiko Eskola Kanpainako COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak dokumentuaren kopia bat izan beharko dute, baita partehartzaile guztiek sinatutako partehartze baldintzen, informazioa eman beharraren, informazioa jaso izanaren ondorengo baimenaren eta PCR proba egiteko baimenaren onarpen dokumentuak ere.

Bi Ibarretako zuzendari eta koordinatzaileek Segurtasun eta Osasun Batzordea eratuko dute, eta haien ardura izanen da: arriskuak identifikatu eta ebaluatzea, estrategia desberdinak definitzea eta COVID-19 ak ondorioztatzen dituen garbitasun eta osasun arriskuak gutxitzeko erabakiak hartzea. Batzorde honek:

1. Erabaki onenak hartu ahal izateko beharrezkoa den informazioa lortzeko baliabideak ezarri (osasun agintariekin hitz egin, osasun zentroekin harremana izan,...)
2. Talde desberdinen banaketa ostatueta, autobusetan, eski-eskoletan, aisialdian eta arratsaldeko jardueretan diseinatu eta kontrolatu, prebentzio eta garbiketa neurriak bete ahal izateko.
3. Batzordeko partaide bakoitzak izanen dituen funtzioak zehaztu.
4. COVID-19 protokoloarekin erlasionaturiko dokumentazioa zaindu.
5. Arriskuen ebaluazioa egin.
6. Eski Kanpainako COVID-19rako garbitasun eta prebentzio neurriak diseinatu, ezarri eta gainbegiratu.
7. Erronkari zein Zaraitzu Ibarretako Osasun Oinarrizko Zonaldeen Lehen Mailako Arreta Taldeekin COVID-19 kasuen kudeaketa protokoloa idatzi eta ezarri.
8. Osasun agintariak, COVID-19aren kontrolerako adostutako neurri eta iradokizunak betetzen direla zaindu eta gainbegiratu.
9. Txanda guztietan eta espazio guztietan oinarrizko osasun garbiketa ekipamenduak daudela bermatu.
10. Pertsonen joan-etorrien antolaketari eta seinalez markatzeari dagozkien neurriak betetzen direla egiaztatu (instalazioen sarbideak, joan-etorriak eta irteerak).



## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

11. Espazio desberdinetan COVID-19aren prebentziorako infografia dagoela bermatu.
12. Prozedurak uneoro gainbegiratu eta hobetu.

Pertsona arduradunek jardueraren segurtasuna bermatuko dute:

- Beharrezko osasun ekipoak izango dituzte eta babes-ekipamenduak banatuko dituzte haiek ez dituzten partehartzaileen artean.
- Ezarritako segurtasun protokolo guztien betetzea begiztatuko dute.
- Protokoloak betetzen ez diren kasuetarako, hezkuntza-neurriak garatuko dira.
- Prebentzio neurriak gogoraraziko dituzte eta ongi betetzea bermatuko dute.

Partehartzaileek:

- Taldeetako arduradunek esaten dutena egin beharko dute eta uneoro maskara eraman eta segurtasun distantzia mantendu.
- Sintomak nabaritzen badituzte, garbiketa eta distantzia neurriak areagotu eta arduradun bati abixua eman beharko diote, ahal den azkarren osasun zerbitzuek ikus dezaten.

### 3. Antolaketa eta segurtasun neurriak

#### 3.1. Maskaren erabilera eta osasun agintariak ezarritako segurtasun distantzia

Maskararen erabilera ondoko prebentzio neurri hauekin osatu beharko da: une bakoitzean osasun agintariak ezarritako segurtasun distantzia, eskuen higiegi zorrotza, ahoa, sudurra eta begiak ez ukitzea, eta ez tul eta doministiku egitean aho-sudurra estaltzea.

#### Aplikatu beharreko neurriak

- ❄ Eski Kanpainan parte hartzen duen ikasle eta irakasle oro derrigortua dago maskara uneoro eramaten.
- ❄ Ezgaitasuna edo menpekotasuna duten pertsonak maskara erabili ezin badute (maskara jarri eta kentzeko autonomoak ez direlako edo haien portaera aztoratzen delako), ez dira erabiltzera derrigortuta egonen.
- ❄ Partehartzaile bakoitzak etxetik ekarriko ditu aste osorako beharko dituen maskarak.
- ❄ Maskarak kirurgikoak, FFP1 edo FFP2 motatakoak izatea gomendatzen da.
- ❄ Eski Kanpainako esparru desberdinetan lan egiten duten langileak FFP2 maskarak erabiltzera derrigortuak egonen dira.
- ❄ Kanpainak maskara kirurgikoak izanen ditu eskura, norbait sintomak erakusten hasten den kasuetarako, eta maskarak irakasleei edo ikasleei eskaini ahal izateko, ahaztu edo behar duten kasuetarako.
- ❄ Maskarak jartzeko eta kentzeko jarraibide zuzenak behar den guztietan azalduko dira.



## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

- ❄ Osasun agintariek ezarritako segurtasun distantzia errespetatzearen garrantzia behin eta berriro errepikatuko da.

### 3.2. Ostatuen kudeaketa

#### Oinarrizko irizpideak

- ❄ Maskaren beharrezko erabilera
- ❄ Ezarritako segurtasun distantzia errespetatzea
- ❄ Espazioen eta materialen garbitasuna ziurtatzea
- ❄ Irakatsi, informatu eta komunikatzea

#### Aplikatu beharreko neurriak

- ❄ Ostatueta beharrezkoa izanen da maskararen erabilera eta soilik kenduko dute gosaldurik, bazkaldurik, afaldu, garbitu edo dutxatu eta lo egiteko.
- ❄ Ostatuan sartzean derrigorrezkoa izanen da eskuak desinfektatzea sarreran egonen den hidrogel banagailua erabiliz. Ostatuan egon bitartean, eskuak ura eta xaboz garbitzea gomendatzen da.
- ❄ Ostatuak osasun protokoloak agintzen dituzten aireztapen, garbiketa eta desinfekzio neurriak jarraituko dituzte.
- ❄ Partehartzaile bakoitzak logela eta ohe finko bat izanen du. kontaktu estu posibleen jarraipena errazteko, partehartzaileak logela desberdinetan nola banatzen diren jasotzen duten mapak sortuko dira.
- ❄ Garbiketa arazoak errespetatuz, ez da gainerako pertsonen esku utziko arropa, oinetako, motxila edo bestelakorik, eta bakoitzak bere lekua izanen du bere materiala gorde eta jasotzeko.
- ❄ Norbanakoarenak diren objektuak elkarbanatzea debekatuta egongo da (eskuoihala, txinalak,...).
- ❄ Gainerantzeko logeletan sartzea debekatuta egonen da.
- ❄ Ikasleak soilik Eski Kanpaina parte hartzeko berrazko materiala ekarriko du. Irakasle bakoitzak ikasle eta familiei ekarri beharreko materiala zehaztuko die.
- ❄ Ezin izango da etxetik janaririk ekarri ez eta logeletara janaririk igo.
- ❄ Sarrera-irteera bat baino gehiago dagoen ostatueta, bideak seinaleztatuko dira.
- ❄ Igogailua baldin badago, soilik ezinbesteko kasuetan erabiliko da, eta beti modu kontrolatuan.
- ❄ Kontakturik gabeko termometro digitalak eskuragarri egonen dira ostatu guztietan.
- ❄ Eski Kanpaina parte hartzen duten ostatueta lan egiten duten pertsonak FFP2 maskarak erabiltzea derrigortuak daude.
- ❄ **Ostatuetako komunitateko erabileraren kudeaketa**



## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

- Erabilera elkarbanatuko komun eta dutxak dituzten aterpeetan, dutxa txandak antolatuko dira logelaka, eta tanda bakoitzak erabili ondoren desinfekzioa egingen da.
- Protokolo honen 3.11 puntuak jasotzen dituen neurriak jarraituko dira.

### ❄️ **Ostatuetako jantokien kudeaketa**

- Kontaktua estuztat hartzen diren partehartzaileak mahai berean gosalduta, bazkaldu eta afalduko dute.
- Mahaien arteko distantzia 2 m edo gehiagokoa izanen da.
- Ostatu berean irakasle bat baino gehiago baldin bada, mahai desberdinetan edo txanda desberdinetan gosalduta, bazkaldu eta afalduko dute.
- Partehartzaile kopurua, jantokiko kopurua baino handiagoa bada, bi gosari, bazkari eta afari txanda egingen dira.
- Partehartzaile bakoitzak gosari, bazkari eta afari bitarte maskara kenduko du, eta amaitu bezain pronto berriz ere jarriko du, ikastetxeko jantokian egiten duten bezala.
- Jantokira ezingo da inongo objektu pertsonalik sartu.
- Jantokira modu ordenatuan joan beharko da, jende multzoak sahiertzuz.
- Ikasle goak eskuak urez eta xaboiak garbitu beharko ditu otorduen aurretik eta ondoren.
- Material kolektiboaren erabilera (erretiluak, mahai-tresnak, pitxerrak, etab.) testuingurura egokituko dira, ukipena ahalik eta gehien mugatzeko.
- Ikasleei etengabe gogorarazi behar zaie segurtasun-tartea eta hesi-keinuak errespetatu beharra, otorduaren aurretik, bitartean eta ondoren. Behin eta berriro errepikatu beharko da ezin direla partekatu ez urik, ez janaririk, ez tresnarik, etab.
- Partehartzaile bakoitzak beti leku bera beteko du jantokian eta logela bera elkarbanatzen duten partehartzaileak elkarren ondoan eseriko dira.
- Janari txanda bat baino gehiago egin behar bada, txanden artean garbiketa eta desinfekzioa egingen da. Beharrezkoa izanen da kontaktu-elementu guztien higienizazioa eta hamar minutuz, gutxienez, jantokiaren aireztatzea.
- Partehartzaileak ezin dira sukaldean sartu, ezin dituzte elikagaiak ukitu eta ezin dute amaierako jasotze lanetan lagundu.
- Ikasleren bati jaten lagundu behar bazaio, langileak babes-maskara eraman beharko du eta eskuen garbitasunerako zehaztutako arauak bete beharko ditu.

### 3.3. **Garraioaren kudeaketa**

#### **Oinarrizko irizpideak**

- ❄️ Maskaren beharrezko erabilera
- ❄️ Ezarritako segurtasun distantzia errespetatzea
- ❄️ Espazioen eta materialen garbitasuna ziurtatzea



## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

- ❄ Irakatsi, informatu eta komunikatzea

### Aplikatu beharreko neurriak

- ❄ Ibilgailuetan derrigorrezkoa izanen da maskararen erabilera.
- ❄ Ezgaitasuna edo menpekotasuna duten pertsonen maskara erabili ezin badute (maskara jarri eta kentzeko autonomoak ez direlako edo haien portaera aztoratzen delako), ez dira erabiltzera derrigortuta egonen.
- ❄ Ikasleen banaketa ibilgailuaren barruan antolatuko da talde desberdinak kontuan hartuz. Ahal den heinean, logela bera elkarbanatzen duten partehartzaileak elkarren ondoan eseriko dira.
- ❄ Miaketa errazteko, ikasleak beti leku berean eseriko dira.
- ❄ Bidaietan zorabiatzeko erraztasuna duten partehartzaileak autobusaren aurrealdean eseriko dira eta zorabiorako poltsa emanen zaie eskura izan dezaten.
- ❄ Autobusean sartzekoan, gidariak hidrogelaren banagailu bat izanen du eskura, ikasle bakoitzaren eskuak desinfektatzeko.
- ❄ Ibilgailuen garbiketa Garraioetako Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren errepideko bidaiarien garraio publikoa garbitu eta desinfektatzeko Protokoloak ezartzen duen bezala egingen da.
- ❄ Eski Kanpainan lan egiten duten gidariak FFP2 maskarak erabiltzera derrigortuak daude.

### 3.4. Eski-biltegiaren kudeaketa

#### Oinarrizko irizpideak

- ❄ Maskaren beharrezko erabilera
- ❄ Ezarritako segurtasun distantzia errespetatzea
- ❄ Espazioen eta materialen garbitasuna ziurtatzea
- ❄ Irakatsi, informatu eta komunikatzea

#### Aplikatu beharreko neurriak

- ❄ Sarrera eta irteera bideak seinaleztatuko dira. Komunak alboko atetik sartuko dira eta atzeko atetik atera.
- ❄ Sarreran eta irteeran hidrogelaren banagailu bat egonen da eta partehartzaile guztiek eskuak garbitu beharko dituzte eski-materiala hartu aurretik eta hartu ondoren.
- ❄ Pertsona arteko tartea gordetzen dela bermatuko da sartzeko ilaretan.
- ❄ Ikasleen komunerako joan-etorriak kudeatuko dira eta ikasleei azalduko zaie eskuak garbitzea nahitaezkoa dela komunak erabili aurretik eta ondoren.
- ❄ Eskuragarri izanen dituzte maskara kirurgikoak, erabilera bakarreko paperezko mukizapiak eta plastikozko edalontziak, iturritik zuzenean edatea sahiesteko.
- ❄ Material bilketa nola egingo den azaldu ondoren, partehartzaileak eski-biltegian aurrera egingen dute zonalde desberdinetan materiala frogatuz eta jasoaz.





## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

- Maileguko materiala (berokiak, eski-prakak, eskularruak, txanoak edo betaurrekoak)
- ESKI BOTAK: Partehartzeile bakoitzari eskatutako zenbakidun bota-parea emanen zaio eta ongi dituen jakiteko frogatu beharko ditu. Ongi izanez gero, eski-begiraleari boten zenbakia esango dio, berak zerrendan idazteko, eta ongi ez baditu, zenbaki handiago edo txikiago bat eskatuko du aproposak topatu arte. Frogatu eta hartzen ez diren bota-pareak berezita utziko dira haien desinfekzioa egiteko.
- ESKIAK eta BASTOIAK (Izaban eski-pistetetan banatuko dira).
- ❄ Kanpoko ateak irekita mantenduko dira partehartzeileen sarrera eta irteera eman bitartean, eta eguraldiak baimentzen duen guztietan.
- ❄ Eski-materialaren bilketa mailakatua izanen da.
- ❄ Partehartzaile bakoitzak bere bota parearen ardura hartuko du, egunero eskiatzera joateko hartu beharko ditu, eta eski-eskolak amaitu ondoren, ostatura eraman beharko ditu, bertan lehertzeko. Maileguko arropa ere, ikaslearen ardurapean geratuko da aste osoan zehar.
- ❄ Salbuespen moduan, ikasle batek egun zehatz batean maileguko materialen bat beharko balu, berea ahaztu izanagatik edo, ikasleak amaitzean itzuli beharko du eta poltsa berezi batean jasoko da, bere garbiketa eta desinfekzioa egiteko.
- ❄ Ostiralean eski-material eta maileguko material guztia jasoko da, eski-biltegira eramanen da eta bertan desinfektatu, garbitu eta lehortuko da.
- ❄ Eski-biltegiko arduradunak FFP2 maskarak eramatera derrigortuak egonen dira.

### 3.5. Eski-eskolen kudeaketa

#### Oinarrizko irizpideak

- ❄ Maskaren beharrezko erabilera
- ❄ Ezarritako segurtasun distantzia errespetatzea
- ❄ Espazioen eta materialen garbitasuna ziurtatzea
- ❄ Irakatsi, informatu eta komunikatzea

#### Aplikatu beharreko neurriak

- ❄ Eski-eskolak jasotzen dituzten bitartean, maskararen erabilera eta pertsonen arteko tartea mantentzea, une bakoitzean Nafarroako Kirol Institutuak agindutakoak izanen dira.
- ❄ Ipar eski talde bakoitzeko partehartzaile-kopuru gehiengoa hamabost lagunetakoa izanen da.
- ❄ Begirale bakoitzak bere taldearen ardura izanen du, pistetan autobusetik jeisten direnetik, herrietara itzultzeko autobusa hartzen duten arte.
- ❄ Eski eta makilak banatu ondoren, El Ferial edo Irati-Abodi Ipar Eski Zentroetara sartuko dira modu ordenatu eta mailakatuan, sarrera desberdinak erabiliz, bertan motxilak modu txukunean uzteko.
- ❄ Eski-eskolen iraupena lau ordutakoa izenen da eta talde bakoitzak kalean hartuko du hamaiketakoa, eguraldiak posible egiten badu. Eguraldi txarra eginez gero, El Ferial edo Irati-



## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

Abodi barruan hartuko dute hamaiketako modu txandakatuan eta taldeka, kopuruak errespetatzeko.

- ❄ Ikasleen komunerako joan-etorriak kudeatuko dira eta ikasleei azalduko zaie eskuak garbitzea nahitaezkoa dela komunak erabili aurretik eta ondoren.
- ❄ Eski-begiraleek haien motxilatari eraman beharko dituzte: hidrogel banatzaile txiki bat, maskara kirurgikoak eta zakar poltsa txiki bat.
- ❄ Partehartzaile bakoitzak bere materiala zaindu beharko du.
- ❄ Materialak elkarbanatzea sahiestuko da (eguzkitako krema, ezpainetako krema, arropa, kantinplorak, betaurrekoak, eskularruak,...).
- ❄ Eski-eskolen bitartean sintomen agerpena begiztatuko da (arnas infekzio akutua (handia), bat-batean agertua, edozein larritasunetako eta eragiten diona, besteak beste, sukarra, eztula edo aire falta. Beste sintoma batzuk ere – hala nola odinofagia, anosmia, ageusia, giharretako mina, beherakoak, bularraldeko mina edo zefaleak – har daitezke SARS-CoV-2ak eragindako infekzioa duela susmatzeko zantzutzat, irizpide klinikoaren arabera), eta irakasle arduradunari edo Kanpainako arduradunari jakinaraziko zaie.
- ❄ Eski-begiraleek eskiak eta makilak desinfektatuko dituzte taldeko material poltsan sartu aurretik.
- ❄ Eski-eskoletako begiraleak FFP2 maskarak eramatera derrigortuak egonen dira.

### 3.6. Ipar-Eski zentroyen kudeaketa

#### Oinarrizko irizpideak

- ❄ Maskaren beharrezko erabilera
- ❄ Ezarritako segurtasun distantzia errespetatzea
- ❄ Espazioen eta materialen garbitasuna ziurtatzea
- ❄ Irakatsi, informatu eta komunikatzea

#### Aplikatu beharreko neurriak

- ❄ Beharrezkoa izanen da maskararen erabilera.
- ❄ Pertsonen arteko tartea gordeko da.
- ❄ Ipar-eski zentroyek osasun protokoloak agintzen dituzten aireztapen, garbiketa eta desinfekzio neurriak jarraituko dituzte.
- ❄ El Ferial eta Irati-Abodi Ipar-Eski Zentroyen barruan ibilbidearen norabidea errespetatuko da eta talde desberdinek erabiliko dituzten esparruak mugatuko dira.
- ❄ Partehartzeileek eskuragarri izanen dituzte ura, xaboia eta hidrogel banagailuak eskuak garbitu eta desinfektatu ahal izateko.
- ❄ El Ferial eta Irati-Abodi Ipar-Eski Zentroyetara modu mailakatuan eta sarrera desberdinak erabiliz sartuko dira, une oro eski-taldeak errespetatuz, jende multzoak sahiesteko.



## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

- ❄ Bagomalta eta La Contienda-ko eraikinetara sarrera mugatua egonen da, eta komunetara eta tabernara sarrera, eski-taldeka antolatuko da.
- ❄ Kontakturik gabeko termometro digitalak eskuragarri egonen dira ipar eski zentroetan.

### 3.7. Arratsaldeko jardueren kudeaketa

#### Oinarrizko irizpideak

- ❄ Maskaren beharrezko erabilera
- ❄ Ezarritako segurtasun distantzia errespetatzea
- ❄ Espazioen eta materialen garbitasuna ziurtatzea
- ❄ Irakatsi, informatu eta komunikatzea

#### Aplikatu beharreko neurriak

- ❄ Beharrezkoa izanen da maskararen erabilera.
- ❄ Jarduera hasi aurretik eta amaitu ondoren eskuen garbiketa erraztuko da.
- ❄ Ikasleen komunerako joan-etorriak kudeatuko dira eta ikasleei azalduko zaie eskuak garbitzea nahitaezkoa dela komunak erabili aurretik eta ondoren.
- ❄ Begirale bakoitza bere taldearen arduraduna izanen da jarduerak iraun bitartean.
- ❄ Jarduera bakoitza hasi aurretik portaera arauak eta oinarrizko prebentzio eta garbitasun neurriak gogoraraziko dira.
- ❄ Arratsaldeko jarduerak burutzeko erabiliko diren espazio eta eraikin desberdientek, kontingentzia plan honen zehaztapenak beteko dituzte.
- ❄ Eskuragarri izanen dituzte maskara kirurgikoak, erabilera bakarreko paperezko mukizapiak eta plastikozko edalontziak, iturritik zuzenean edatea sahiesteko.
- ❄ Arratsaldeko jarduerak garatzen diren espazioak talde batek jarduera bukatzen duen bakoitzean aireztatu eta desinfektatuko dira. Garbiketa lanetan, arreta berezia jarriko da erabilera komuneke ereumuak eta gehien ukitzen diren gainazaak eta gauzak garbitzen, hala nola ateetako eskulekuak, mahaik, aulkiak, altzariak,... Posibe bada, eremu itxietan, jarduerak irauten duen bitartean leihoak zabalik mantenduko dira.
- ❄ Arratsaldeko jardueretan lan egiten duten begiraleek FFP2 maskarak eraman beharko dituzte.

### 3.8. Eskiaren ordezkotako jardueren kudeaketa

#### Oinarrizko irizpideak

- ❄ Maskaren beharrezko erabilera
- ❄ Ezarritako segurtasun distantzia errespetatzea
- ❄ Espazioen eta materialen garbitasuna ziurtatzea
- ❄ Irakatsi, informatu eta komunikatzea

#### Aplikatu beharreko neurriak



## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

- ❄ Maskararen erabilera beharrezkoa izanen da.
- ❄ Jarduera hasi aurretik eta amaitu ondoren eskuen garbiketa erraztuko da.
- ❄ Eski-begirale bakoitza bere taldearen arduraduna izanen da ordezeko jarduerak iraun bitartean.
- ❄ Ikasleen komunerako joan-etorriak kudeatuko dira eta ikasleei azalduko zaie eskuak garbitzea nahitaezkoa dela komunak erabili aurretik eta ondoren.
- ❄ Eguraldiak laguntzen badu jarduerak kalean egingen dira.
- ❄ Eskiaren ordezeko jarduerak burutzeko erabiliko diren espazio eta eraikin desberdientek, kontingentzia plan honen zehaztapenak beteko dituzte.
- ❄ Eskuragarri izanen dituzte maskara kirurgikoak, erabilera bakarreko paperezko mukizapiak eta plastikozko edalontziak, iturritik zuzenean edatea sahiesteko.
- ❄ Eskiaren ordezeko jarduerak garatzen diren espazioak talde batek jarduera bukatzen duen bakoitzean aireztatu eta desinfektatuko dira. Garbiketa lanetan, arreta berezia jarriko da erabilera komuneko eremuak eta gehien ukitzen diren gainazalak eta gauzak garbitzen, hala nola ateetako eskulekuak, mahaik, aulkiak, altzariak,... Posibe bada, eremu itxietan, jarduerak irauten duen bitartean leihoak zabalik mantenduko dira.

### 3.9. Aisialdiaren kudeaketa

#### Oinarrizko irizpideak

- ❄ Maskaren beharrezko erabilera
- ❄ Ezarritako segurtasun distantzia errespetatzea
- ❄ Espazioen eta materialen garbitasuna ziurtatzea
- ❄ Irakatsi, informatu eta komunikatzea

#### Aplikatu beharreko neurriak

- ❄ Izaban aisialdiko hiru espazio hauetako bakoitzean (LUDOTEKA, ANFITEATROA eta ERMINEA FRONTOI ESTALIA) begirale arduradun bat egonen da, prebentzio eta garbiketa neurriak betetzen direla ziurtatu eta maileguko kirol materiala (badmintona, baloiak, erraketak, palak,...) kudeatzeko eta erabili ondoren desinfektatzeaz arduratzeko.
- ❄ Otsagabian frontoia eta eskolako pista erabiliko dira aisialdi espazio bezala eta begirale arduradun bat egonen da, prebentzio eta garbiketa neurriak betetzen direla ziurtatu eta maileguko kirol materiala (badmintona, baloiak, erraketak, palak,...) kudeatzeko eta erabili ondoren desinfektatzeaz arduratzeko.
- ❄ Toki esanguratsu batean COVID-19ari aurre egiteko oinarrizko neurriak jasotzen dituen informazio-aula jarriko da.
- ❄ Ikasleen komunerako joan-etorriak kudeatuko dira eta ikasleei azalduko zaie eskuak garbitzea nahitaezkoa dela komunak erabili aurretik eta ondoren.
- ❄ Jolaserako materiala erabili behar duen ikasle orok, eskuak desinfektatuko ditu materiala erabili aurretik eta erabili ondoren.



## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

- ❄ Eskuragarri izanen dituzte maskara kirurgikoak, erabilera bakarreko paperezko mukizapiak eta plastikozko edalontziak, iturritik zuzenean edatea sahiesteko.
- ❄ Izaban, aisialdi denboran, ordutegi jakin bat egonen da ikasleek janari edo oroigarriak erosi ahal izateko eta dendetako aforoak errespetatu beharko dituzte.

ESKI TXANDA	EROSKETA ORDUTEGIA
LEHEN TXANDA	16:00 – 17:00
BIGARREN TXANDA eta ASOLAZE	17:00 – 18:00

- ❄ Otsagabian, aisialdi denboran, begiraleek kudeatuko dituzte erosketa ordutegiak ikastetxeka. 20:00etan ikaslego guztia frontoian egon beharko da.
- ❄ Aisialdian janaria kontrolpean janen da, beti eremu zabaletan eta ez kalean oinez goazen bitartean. Debekatuta egondo dira pipak, txupa-txups-ak edo, maskara denbora luzean kenduta izatera behartzen duten litxarkeriak. Elikagaiak edo litxarkeriak elkarbanatzea debekatuta egonen da.

### 3.10. Komunitateko erabileraren kudeaketa

#### Oinarrizko irizpideak

- ❄ Maskaren beharrezko erabilera
- ❄ Ezarritako segurtasun distantzia errespetatzea
- ❄ Espazioen eta materialen garbitasuna ziurtatzea
- ❄ Irakatsi, informatu eta komunikatzea

#### Aplikatu beharreko neurriak

- ❄ Ikasleen komunerako joan-etorriak kudeatuko dira.
- ❄ Konketak eta pixatokiak, bitik bat itxiko dira, tarteka, erabiltzaileak hurbil egon ez daitezten.
- ❄ Komunak maiz aireztatuko dira.
- ❄ Ikasleei azalduko zaie eskuak garbitzea nahitaezkoa dela komunak erabili aurretik eta ondoren.
- ❄ Xaboi likidoaren eta eskuak lehortzeko paperaren hornidura egokia ziurtatuko da.
- ❄ Eskuak lehortzeko erabiltzen diren paperak tapakia pedalaz irekitzen diren paperontzietara botako dira.
- ❄ Espazio eta gainazal hauek egunero garbituko dira eta egunean behin baino gehiagotan deinfektatuko dira. Paperontziak ere maiz hustuko dira.

### 3.11. Garbiketa eta desinfekzioa

#### Oinarrizko irizpideak

- ❄ Maskaren beharrezko erabilera
- ❄ Ezarritako segurtasun distantzia errespetatzea
- ❄ Espazioen eta materialen garbitasuna ziurtatzea



## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

- ❄ Irakatsi, informatu eta komunikatzea

### Aplikatu beharreko neurriak

- ❄ Oso garrantzitsua da ongi garbitzea desinfektatu baino lehen.
- ❄ Garbiketa-lanetan, arreta berezia jarriko da erabilera komuneko eremuak eta gehien ukitzen diren gainazalak eta gauzak garbitzen, hala nola, ateetako eskulekuak, mahaiak, aulkiak, altzariak, eskudelak, lurzorua eta antzeko ezaugarriak dituzten elementuak.
- ❄ Garbitzeko eta desinfektatzeko Osasun Ministerioak baimendu eta erregistratutako produktuak erabiliko dira. Betiere, etiketan ageri diren argibideei jarraikiz erabiliko dira.
- ❄ Ez dira garbitzeko produktuak nahasi behar, sor daitezkeen lurrinak kaltegarriak izan baitaitezke arnas-mukosentzat, begientzat eta azalarentzat.
- ❄ Sistematikoki urez garbitu libxibaren soluzioa aplikatu ondoren.
- ❄ Gainazalen garbiketa eta desinfekzioa bi produktu desberdinekin egiten bada (detergentea eta desinfektatzailea) ondorengo pauso hauek eman behar dira: garbitu detergentez bustitako zapi batekin, xaboa kendu urez bustitako beste zapi batekin, gainazala lehortu, desinfektatzailez bustitako hirugarren zapi batekin desinfektatu.
- ❄ Ezin dira zapi berak erabili gainazal desberdinak garbitzeko.
- ❄ Berrerabilgarriak diren zapiak, mopak eta abar 60°C-tara garbitu beharko dira erabili ondoren.
- ❄ Botatzekoak diren zapiak zabor poltsa batean sartu, poltsa itxi eta errefusaren ontzian bota behar dira.
- ❄ Ez da desinfektatzeko lanik egin behar partehartzaileak bertan baldin badaude.
- ❄ Garbitasunaren eta espazioen erabileraren artean utzi beharreko denbora-tarteak errespetatu behar dira.
- ❄ Garbitasun produktuak ez dira ikasleen eskura utziko.
- ❄ Espazio guztietan eskuragarri izango dira materialak desinfektatzeko produktuak, papera, eskuak garbitzeko hidrogela eta pertsona arduradunek erabili beharko guztia. Gainera, espazio edo eraikin bakoitzean eguneroko garbiketa plangintza bat idatziko da, eta garbiketaz arduratuko diren pertsonen gogoraraziko zaie, garrantzitsua del egoki erabiltzea garbitzeko eta desinfektatzeko produktuak.
- ❄ **OSTATUAK:** Ostatu bakoitzeko pertsona arduradunak ostatuetakoko garbiketa eta desinfekzioaz arduratuko dira.
- ❄ **ESKI-BEGIRALEAK:** Eski-begiraleek eski eta makilak desinfektatuko dituzte talde bakoitzeko poltsan sartu baino lehen.
- ❄ **ARRATSALDEKO JARDUERAK:** Jarduera bakoitzeko pertsona arduradunak talde aldaketa bakoitzean erabilitako materiala, mahaiak, aulkiak, eta abar garbitu eta desinfektatuko ditu, baita komunak ere. Hein berean, espazioak aireztatuko ditu.
- ❄ **IPAR ESKI ZENTROAK:** Ipar Eski Zentro bakoitzeko pertsona arduradunak ostatuetakoko garbiketa eta desinfekzioaz arduratuko dira.



## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

- ❄️ **ANBULANTZIA:** anbulantzietako pertsona arduradunek hauek garbitu, desinfektatu eta aireztatuko dituzte.
- ❄️ **AUTOBUSAK:** Autobus bakoitzeko gidariak egunean bitan autobusak garbitu, desinfektatu eta aireztatuko ditu.
- ❄️ **ESKI BILTEGIA:** Eski bitegiko pertsona arduradunek eski biltegia garbitu, desinfektatu eta aireztatuko dute asteleheneko eski-materialaren banaketaren ondoren. Hein berean, ostiralean, partehartzaileak joan ondoren, erabilitako eski-materiala garbitzeaz, desinfektatzeaz eta lehortzeaz arduratuko dira.
- ❄️ **ZUZENDARIAREN ETA KOORDINATZAILEAREN IBILGAILUAK:** zuzendariak eta koordinatzaileak, Eski Kanpainako partehartzaileak garraiatu badituzte, haiek erabiltzen dituzten ibilgailuak garbitu, desinfektatu eta aireztatuko dituzte Osasun Ministeritzatik gomendutako neurriak jarraituz. Gainera, txanda bakoitzean maileguan utzitako materiala garbitu eta desinfektatuko dute (makuluak, berokiak, eski-prakak, eskuarrak, betaurrekoak,...).
- ❄️ Komun eta espazio komunen garbiketa eta desinfekzio lanetan udal langileen laguntza izanen dugu. Paperontziak hustu eta poltsak maiz aldatuko dituzte, xaboi, eskuak lehortzeko erabili eta botatzeko paper eta hidrogel nahikoa egoteaz arduratuko dira, eta eskuak modu aproposan nola garbitu erakusten duen infografia egon badagoela. Azkenik, arratsaldeko edo ordezko jarduerak egiten diren espazioetan babes eta garbiketa material nahiko egoteaz arduratuko dira.
- ❄️ Orokorrean, ondoko material eta baliabide nahiko izan behar da biltegian:
  - Maskarak eta babeserako garbiketa (ura eta xaboia edo hidrogela)
  - Kontakturik gabeko termometro digitalak
  - Garbiketa produktuak
  - Zakar poltsak
  - Paper-erroiluak
  - Tapakia pedalez irekitzen diren paperontziak
  - Osasun agintariak gomendatu ahal dituzten produktu eta materialak

### 3.12. Eski Kanpainako langileen kudeaketa

#### Oinarrizko irizpideak

- ❄️ Maskaren beharrezko erabilera
- ❄️ Ezarritako segurtasun distantzia errespetatzea
- ❄️ Espazioen eta materialen garbitasuna ziurtatzea
- ❄️ Irakatsi, informatu eta komunikatzea

#### Aplikatu beharreko neurriak



## COVID-19 –aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

- ❄️ Eski Kanpainako langile oro Kontingentzia Plan honetan jasotako segurtasun neurriak betetzera derrigortua dago. Langileen formakuntzarako behar beste denbora erabiliko da eta norbanakoaren ardurari garrantzia emanen zaio, Eski Kanpainako jardueraren barruan eta kanpoan.
- ❄️ Langileek uneoro beteko dituzte COVID-19ari aurre egiteko Eski Kanpainako arduradunek erraztutako prebentzio-neurriak.
- ❄️ Neurri osagarri gisa, honako jarraibide hauek beteko dira:
  - FFP2 maskaren derrigorrezko erabilera
  - Segurtasun distantzia mantendu
  - Eskuak maiz eta modu egokian garbitzea, jarduera hasi baino lehen eta amaitu ondoren, doministiku edo eztul egin ondoren, mukiak kendu ondoren edo kutsatuta egon daitezkeen gainazalak ukitu ondoren (dirua, eta abar). Ura eta xaboiak garbitzea posible ez bada, hidrogela erabiliko da.
  - Begiak, sudurra eta ahoa ukitzea sahiestuko da.
  - Norbanakoaren objektuak maiz desinfektatuko dira (betaurrekoak, mugikorak, eta abar), ura eta xaboiak posible denean eta bestea hidrogelaz.
  - Elkarbanatuko den materialaren desinfekzioa aurreikusi, erabili aurretik eta erabili ondoren.
  - Agurtzerakoan, kontaktua ekidin, baita eskuak ematea ere. Posible den guztietan segurtasun distantzia mantendu behar da.
  - Doministiku edo eztula egitean sudurra eta ahoa erabili eta botatzeko zapi batez estali eta ondoren berehala zaborrontzira bota. Zapirik ez izatekotan, ukondoaren barneko zonaldea erabili eskuak ez kutsatzeko. Ondoren eskuak ongi garbitu.
  - Beste lankideekin lan-materiala ez elkarbanatu.
  - Bileratan segurtasun distantzia errespetatu.
  - Partehartzaileak maiz behatu gaixotasun posible baten sintomak dituzten ikusteko.
  - Kuadro kliniko hau duen Kanpainako edozein langile kasu susmagarria izan daiteke; arnas infekzio akutua, bat-batean agertua, edozein larritasunetako eta eragiten diona, besteak beste, sukarra, eztula edo aire falta. Beste sintoma batzuk ere – hala nola odinofagia, anosmia, ageusia, giharretako mina, beherakoak, bularraldeko mina edo zefaleak – har daitezke SARS-CoV-2ak eragindako infekzioa duela susmatzeko zantzutzat, irizpide klinikoaren arabera. Beraz, garrantzitsua da, langileren batek hauetako sintomaren bat sentituz gero, Osasun Zentrora lehen bati lehen deitzea, bertan beharrezko esplorazioa eta antígeno froga egin ahal izateko. Ez zaie sintomei garrantzirik kendu behar.